



Lekua: Batzar Aretoa / Lugar: Salón de Plenos

Bildutakoak: / Asistentes:

Alkatea / El Alcalde Andoni Alvarez Lete

Zinegotziak: / Concejales:

EH-Bildu

Marta Lasa Goñi
 Xabier Fondón Pajares
 Garazi Usandizaga Zubiria
 Iosu Mateo Turrillas
 Haizea Barandiaran Zubillaga
 Diego Barrasa Ruiz
 Larraitz Arriola Larrarte

PSE-EE

José Luis Verdasco Gutierrez
 Ascensión Parrón Peguero
 Aritz Alkain López
 José Antonio Fernández Da Purificação

EAJ-PNV

Imanol Goenaga Egibar
 Idoia Mikelez Alonso

Elkarrekin Podemos

Jose Mari Iparragirre Balda

Akta Zenbakia	00000011
Eguna	2025/11/27
Hasiera	19.00
Amaiera	19.38

Idazkaria:

Unai Rekondo Pérez

Kontuhartzailea

Myriam Lizaso
 Arruabarrena

Interpretaria

Jon Unanue Lopez

Ez dira bertaratu eta adierazi dute: / No asisten y se excusan:

María Belén Moreno Méndez – PSE-EE

M^a Sagrario Ruiz Fernández – EAJ/PNV

Gai Zerrenda:

- 2025/10/23(e)an egindako batzarraren aktaren zirriborroa irakurri eta onartzea, bidezko bada.

Xedapenak

- Andoingo Udala Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren Partzuergoan sartzearen onarpena.
- 2025/10 zk kreditu aldaketaren berri ematea (Bertxin)
- 2025/11 zk kreditu aldaketa onartzeko proposamena
- Epe luzerako finantza eragiketa kontratatzeke esleipen proposamena.

Kontrola

- Ebazpenen berri ematea, zehazki, 2675 zenbakidunetik 2925 zenbakidunera eta Tokiko Gobernu Batzarrak hartutako erabakien berri ematea, zehazki, 29. aktatik 32 aktara.

Orden del Día:

- Lectura y aprobación, si procede, del borrador del acta de la sesión celebrada el 23/10/2025.

Parte Dispositiva

- Aprobación de la integración del Ayuntamiento de Andoain en el Consorcio Autoridad Territorial del Transporte de Gipuzkoa.
- Dar cuenta del modificativo de crédito nº 10/2025 (Bertxin)
- Propuesta aprobación expediente modificativo de crédito nº 11/2025
- Propuesta de adjudicación para la contratación de una operación financiera a largo plazo.

Parte de Control

- Dar cuenta de las Resoluciones comprendidas entre la nº 2675 y la nº 2925 y de los acuerdos adoptados por la Junta de Gobierno Local, en concreto los comprendidos entre el acta nº 29 al acta nº 32.



7. Galderak, eskaerak eta proposamenak.

7.- Ruegos, preguntas y propuestas.

Nahikoa quorum dagoenez eta lehendakaria eta idazkaria ere bertan daudenez, bilkura baliozki eratzen da.

Alkate jaunak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Arratsalde on eta ongi etorri azaroko ohiko Udalbatza honetara. Hasi baino lehen aipatu nahi dut Belen Moreno zinegotzi andreak bere bozka PSE-EEko Aritz Alkain ordezkariarengan ordezkatu duela eta Txitxu Ruiz zinegotzi andreak Imanol Goenaga EAJ/PNV ordezkariarengan ordezkatu duela bere botoa. Besterik gabe, hasiera emango diogu ohiko udalbatzari.”

1. 2025/10/23(e)an egindako bileraren akta irakurri eta onartzea, bidezko bada.

Idazkaritza bidali zaizue korreo elektronikoko bat zuzenketa batzuekin. Korreoa agertzen dira zein diren zuzenketa horiek eta hortaz gain agertzen da aktan bertaraturakoen artean Mainer Lainez andrea, eta akatsa da, beraz, onartzera jartzen da bidalitako korreo horretan dagoen akta, aipaturako izen hori ezabatuta.”

Jarraian, 2025/10/23 datako batzarraldiari dagokion akta irakurtzeari ekin zaio, eta inork ezer adierazi ez duela kontutan harturik, onartutzat eman da.

2. Andoingo Udala Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren Partzuergoan sartzearen onarpena.

Andoingo Udalak, Estatuko eta autonomia-erkidegoetako legeriaren arabera, eskumena du hiri-bideetako ibilgailuen eta pertsonen trafikoaren eta bidaiarien hiri-garraio publikoaren antolamenduaren arloan, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 25.2.g) artikuluan eta Euskadiko Toki Erakundearen buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 17.1.18 artikuluan ezarritakoaren arabera.

Eskumen hori baliatuz, Andoingo Udalak aspalditik eskaintzen du bidaiarien hiri-garraioko zerbitzua bere udalerrian.

Gaur egun, Autocares Urpa SL enpresak ematen du zerbitzu hori, 2024ko martxoaren 1ean sinatutako administrazio-kontratuan eta kontratuaren esleipena arautu zuten baldintza administrazio berezien agirian eta baldintza teknikoaren agirian aurreikusitako baldintzetan. Gaur egun indarrean dagoen kontratuak GGLAn sartzeko aukera jasotzen du, zerbitzuaren esleipendunak "txartel bakarra" ezartzeko beharrezko ekipamendua implementatu behar duela ezarriaz.

Bestalde, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrek, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Donostia, Irun, Errenteria, Eibar, Zarautz, Arrasate-Mondragón Hernani, Lasarte-Oria, Oiartzun, Oñati eta Tolosako udalek Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren Partzuergoa osatzen dute. Haien helburua, garraio-bide eredu jasangarri baten bitartez, Lurralde Historikoa kohesionatzea eta baita mugikortasunaren alorrean administrazio publikoek dituzten helburu desberdinei babesa ematea da. Bere zeregina, Gipuzkoako Lurralde Historikoko kalitatezko mugikortasun irisgarria faboratzea da.

Zentzu horretan, Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren jomuga -beste batzuen artean-, Partzuergoa osatzen duten erakundeek eta Gipuzkoako garraioaren azpiegituren arteko koordinazioa eta kooperazioa artikulatzea da. Gainera, zerbitzuak, sareak eta tarifak koordinatuta izan daitezkeen sustatu eta bultzatzea; eta erabilzailearen eskura jartzea eskaintza hobea, azken helburutzat hartuta garraioaren erabilera bultzatzea eta suspertzea.

Oinarritzko helburu edo eremu-ekintza da “tarifa integratua” izatea, Gipuzkoan edozein garraio-bideetan -dela trena, dela autobusa -, txartel bakarraren bidez. Egun “Mugi” sistemaren bidez gauzatzen



dena. Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritza haren egitura organikoari buruzko arauak zehazten dituen Gipuzkoako Foru Aldundiko organora atxikita dago.

2025eko ekainaren 26an Udalbatzaren Osoko Bilkurak hartutako seigarren erabakiaren bitartez, Andoingo Udala Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzan sartzea onartu zen eta Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzari eskatu zitzaion Andoingo udala bertan sartzeko eskaera onartzea, haren Estatutuen 37. artikuluan ezarritakoaren arabera eta babesean.

Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzako Batzar Nagusiak, 2025eko irailaren 25ean eginiko bileran, Andoingo Udala Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzara (GGLA) gehitzea bidezkoa dela erabaki du, GGLAren Estatutuen 13. artikuluan aurreikusitako partzuergoaren bazkide diren erakundeek izendatutako ordezkarien bozken portzentaje berria zein izango litzatekeen adieraziz eta sartzeko baldintzak ezarriz. Estatutueta ezarritakoaren arabera, Andoingo udalari dagokion portzentaia % 0,252koa da eta boto-kopurua 2,52.

Era berean, GGLAren Estatutuen 30. artikulua baitan, Partzuergoko kide diren erakundeek ordainduko dituzte GGLA eratzeko eta entitate horrek funtzionatzeko beharrezko diren ekarpenak, Batzar Nagusian duten ordezkapenaren ehunekoaren arabera. Hori dela eta, Andoingo udalaren ekarpen ekonomikoa 10.931,30 eurotan ezarri da.

Gainera, GGLAn sartzeko baldintzat ezarri da Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzan integratutako gipuzkoar administrazioen eremuan, errepidetako pertsona bidaiarien garraio zerbitzu publikoen Harmonizaziorako Erregelamendua onartzea.

Aztertu da Andoingo Udala Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritza Partzuergoan kide izateko Partzuergoak 2025eko irailaren 25ean eginiko Batzarrean onartutako bidezketasuna eta ezarritako baldintzak eta ikusi da Andoingo Udalak Partzuergoaren xedeekin bat egiten duela, interesa komuna izanik, Sektore Publikoaren araubide Juridikoa arautzen duen urriaren 1eko 40/2015 Legearen, 118 eta hurrengo artikulua eta Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren Estatutuen 37. artikulua kontuan hartuz.

Gai honen inguruan, hirigintza eta zerbitzuetako administrazio orokorreko teknikariak eta udal kontuhartzaileak igorritako txostenak kontuan hartuz eta Lurraldea Batzorde Irizpenemailearen 2025/11/17 datako irizpena ikusirik.

Idazkari jaunak, hartu du hitza eta honakoa esan du:

“Bai. Hemen aipatu behar da ere bai, Garraioaren Lurralde Agintaritzak hasiera batean adierazi ziola Andoingo udalari bere ekarpena izan behar zuela 10.931,30 eurokoa eta ondoren adierazi digute 5.620,00 eurokoa izan behar duela. Orduan, planteatutako litzatekeena da hori irizpenean agertzen denez, zuzenketa gisa edo sartzeko lehendabizi aldaketa hori txertatzeko, 10.931,30 euro beharrean, 5.620,00 euro. Eta behin, bere kasuan, hori onartuta, bozkaturako litzateke, hasierako testua aldaketa horrekin.”

Jarraian, Fondón jaunak, Zerbitzuetako Zinegotzi Ahaldunak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Bai, arratsalde on, proposamenak zortzi puntu dakartza, eta hurrengo hauek dira:

“Lehenengoa, Andoingo udala Partzuergoan sartzearen onspena ematea.

“Bigarrena, onspena ematea Agintaritzaren Estatutuei.

“Hirugarrenengoa, hasierako onspena ematea.

“Laugarrena. Tarifen integrazioko sistema ezartzea lankidetzaz hitzarmenaren batean. Baita ere beste puntu bat eukiko du bertan, zerbitzu publikoaren kudeaketa, kasu honetan Urpa enpresak emandakoa.

“Bosgarrena. Ekarpene ekonomikoa, Unai esan duen bezala, aldaketa egon da, 5.620,00 eurokoa izango da.

“Seigarrena. Ordezkaritza izendatzea, titular gisa Andoni Alvarez alkatea eta ordezkaria Xabier Fondon, ni neu.

“Zazpigarrena. Erabaki hau informazio publikoan jartzea eta zortzigarrena, Alkate-Lehendakariari beharrezkoak diren agiri publiko nahiz pribatuak sinatzeko ahalmena ematea.”

Gaia eztabaidara jarri da eta lehendabizi, Alkain jaunak, PSE-EE udal taldeko eledunak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Kaixo, arratsalde on. Bueno, como siempre que hablamos del Hiribusa y de la integración en el



sistema MUGI, desde el Grupo Municipal Socialista no nos queda nada más que mostrar nuestra satisfacción porque se hayan dado estos pasos, porque se hayan agilizado y ver que, bueno, dentro de muy poco tiempo sea una realidad. Y en este sentido sí que queríamos hacer una reflexión, cuando hablamos del Hiribusa y con las medidas que hemos adoptado en estos últimos meses, con la gratuidad que propusimos para los niños y niñas de hasta 15 años, el ver a día de hoy el autobús urbano que prácticamente va completo y lleno en prácticamente todos sus viajes, y bueno, hemos conseguido el objetivo que nos proponíamos y era fomentar el Hiribusa, y esperamos que así se siga haciendo con la integración próxima de la Mugi. Eskerrik asko.”

Parte-hartze gehiagorik izan ez denez, Alkate jaunak, proposamena bozketara jarri du eta Osoko Udalbatzaren Bilkurak, aho batez, Alkate jaunaren eta EH Bildu, PSE-EE, EAJ/PNV eta Elkarrekin Podemos udal taldeetako zinegotzien aldeko botoekin, honakoa erabaki du:

Lehenengoa: Andoingo Udala Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren Partzuergoan sartzeari onespina ematea.

Bigarrena: Onespina ematea Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren Estatutuei.

Hirugarrena: Hasierako onespina ematea Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren barruan dauden Gipuzkoako administrazioen eremuan bidaiarien errepide bidezko garraio-zerbitzu publiko erregularrak harmonizatzeko erregelamenduari, eranskinean jasota dagoen moduan.

Nolanahi ere, erregelamendu honen onarpen efektiboa eta indarrean-sartzea Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzan inkorporatze eraginkorraren mende geratuko da.

Laugarrena: Onestea, Andoingo Udala Partzuergoan inkorporatze efektiboaren mende, honako dokumentu hauek:

- Andoingo Udalak eta aipatutako Partzuergoak izenpetzen duten “Gipuzkoako Lurralde Historikoan garraio publikoko zerbitzuan tarifen integrazioko sistemari ezartzeko” lankidetzaren hitzarmena, eranskinean jasotako moduan.

- Andoingo udalerrian bidaiarien hiri garraio zerbitzu publikoaren kudeaketa – Autocares Urpa SL enpresak emanda- Andoingo garraio publikoko zerbitzuan tarifen integrazioko sistema ezartzeko lankidetzaren hitzarmena, eranskinean jasotzen den moduan. Hitzarmen hau zerbitzuaren esleipendunak, Udalak eta Partzuergoak sinatu beharko dute.

Bosgarrena: 5.620,00 euroko ekarpen ekonomikorako gastua onartzea. Gastu hau 2026. ekitaldiko Udal Aurrekontuaren dagokion partidaren aurreikusiko da.

Seigarrena: Andoingo Udalak Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzan izango duen ordezkariarako izendatzea, titular gisa, Andoni Álvarez Lete alkate-jaua, eta, ordezkari, Xabier Fondón Pajares zinegotzi jaua.

Zazpigarrena: Erabaki hau informazio publikorako jartzea, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udalaren iragarki-taulan txertatuko diren iragarkien bitartez, hilabete bateko epean, arren eta herritarrek ikus dezaten eta alegazioak, erreparatuak edo oharkizunak formula ahal ditzaten. Ezen, inork alegaziorik edo iradokizunik aurkezten ez badu, behin betiko onetsitaz joko direla ordu arte behin-behinekoak ziren erabakiak.

Zortzigarrena: Alkate lehendakari eta haren legezko ordezkariari hartzen diren akordioaren exekuzioa era eraginkortasuna bermatzeko behar diren tramiteen arabera, hitzarmen edo dokumentuak formalizatzeko beharrezkoak diren agiri publiko nahiz pribatuak sinatzeko ahalmena ematea.

3. 2025/10 zk kreditu aldaketaren berri ematea (Bertxin).

Alkate jaunak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Bai, kreditu aldaketa honi buruz pasa den udalbatzan ere hitz egin genuen, hau da, Bertxineko Zentralean izan ziren kalteak konpontzeko kreditu aldaketa bat egitea dakarkigu gaur hona berri ematera. Dakizuen bezala, azkeneko hilabeteetan, egon dira kalte ugari Bertxingo zentralean eta hori konpontzeko 450.000 euroko kopurua behar dugu. Kopuru hau gerakinetik hartuko dugu eta gaur hona berri ematea dakarkiguna da, kopuru hori gerakinetik hartuko dugula ahalik eta azkarren Bertxineko zentrala konpontzeko lanekin hasteko.”



Gaia eztabaidara jarri da eta lehenbizi, Goenaga jaunak, EAJ/PNV udal taldeko eledunak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Aurreko arratsaldean, aurreko Udalbatzan mozio bat erregistratu genuen, eskatzeko gobernu taldeari, lan hauek, Bertxinen egin beharreko lan hauek urgentziaz egin zitezen. Eta bueno, pozik gaude aho batez onartu zelako mozio hura. Eta hilabete bat beranduago, pues bueno, jada kreditu modifikatiboa aktibatu delako, pena da, hau irailan jada lehen txosten teknikoak mahai gainean zegoen, ez aktibatu izana automatikoki, ez? Galdu behar izan dugu iraila, urria, azaroa eta ia abendua, atarian jarri garelako, ez? Baina bueno, atzera begiratzeak ez du jada dagoeneko balio. Pozik gaude aktibatuko delako eta hori izan dadila baita ere Bertxingo Zentrala ahalik eta lasterren berriro ere irekita eta funtzionatzen ikusteko lehen urratsa.”

Parte-hartze gehiagorik izan ez denez, Osoko Udalbatzaren Bilkura jakinaren gainean geratu da.

4. 2025/11 zk kreditu aldaketa onartzeko proposamena.

“Transferentzia bidezko 2025/11 zenbakiko kreditu aldaketaren (SAREKOn 2025-KALD-000013-00 zenbakidun) espedientea onartzeko proposamena.

Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko (Kultura eta Gizarte zerbitzutako proposamenak) espedientearen berri eman da, gastu partiden arteko kreditu transferentziaren modalitatekoa.

Kontu-hartzaileak egindako txostena kontuan izan da, bertan adierazten da aipatutako espedientea bat datorrela aplikagarria zaion legeriarekin, zehazki 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzkoak, 29. artikuluan ezarritakoarekin.

Era berean, Antolaketa Batzorde Informatzaileak 2025/11/19(e)ko bileran emandako aldeko irizpena ikusirik.

Alkate jaunak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Bai, puntu honetan bozkatuko dena da, salen arteko kreditu aldaketak, guztira 95.000 eurokoak, Kultura Sailekoak eta Gizarte Zerbitzu Sailekoak dira eta sail bakoitzeko zinegotzi ahaldunek azalduko dizkigute, kreditu ezaugarriak.”

Jarraian, Lasa andreak, Hezkuntza eta Kultura Zinegotzi Ahaldunak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Arratsalde on denoi. Kultura eta Hezkuntza Sailetik proposatzen dugun kreditu aldaketa, lau partidetan islada dauka, guztira 37.000 eurokoa litzateke.

“369 partidatik, kultur ekintzak, urtero bezala, Bastero Kulturguneko programazioaren barruan Gabon Giroan izeneko programazio berezi bat egiten dugu, antzerki, musika, kontzertu eta ikuskizunez osatua. Aurten aurreikusi gabe zeuden hainbat gastu direla eta, horretara egokituta dagoen partidaren ez dago nahiko krediturik. Hori dela eta, 12.500 euro gehitzea aurreikusten dugu partida honetan. 237 partidaren kasuan, zinema zerbitzua, 2015eko aurrekontua. Hartaraino zinema zerbitzuko gastua 369 partidatik, kultur ekintzatik egin izan da eta urte horretan bere partida propioa izatea aurreikusi genuen. Oraingo honetan ere ez da iristen partidaren dagoen diruarekin, urte amaiera arteko saioak egin ahal izateko, eta horregatik partida honi 9.500 euro gehitzea aurreikusten dugu. 283 partidaren kasuan, Izturizaga Dorretxean, 2025eko aurrekontuetan Izturizaga Dorretxean egin beharreko egitura azterketa, alde batetik, eta azterketa historiko ondarekoa egiteko diru partida bat doitu genuen, 25.000 eurokoa. Lehen azterketaren kasuan, egiturazkoa, azterketa hau eginda dago, baina bigarren azterketa egin ahal izateko, hau da, historiko ondarekoa egiteko, ez da iristen krediturik eta hori dela eta, partida honetan 5.000 euroko igoera egingo dugu..”

“Eta bukatzeko, 371. Partida, jaietako holtzen muntaketari dagokiona da. 2025eko ekainean Nafarroa Plazan montatu beharreko oholtzaren muntaketan ezbeharrak egon ziren bertan zeuden obra batzuen ondorioz. Oholtza garraiatzen zuen garraioak ezin izan zuen muntaketa guneraino iritsi. Horrek beste garraio bat erabiltzea behartu gintuen eta ondorioz, kontratuan horrelako ezbehar hau aurreikusi gabe zegoelako festetako kioskoan muntaketako partida hau, handitu beharko dugu, 10.000 eurotan.”

Jarraian, Barandiaran andreak, Gizarte Zerbitzuetako Zinegotzi Ahaldunak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Bueno, jarraian Gizarte Zerbitzuetako kreditu aldaketa azalduko dut. 2025ean etxez etxeko laguntza



zerbitzua ordaintzeko partida hornitu zen, 2024ean baina 100.000 euro gehiago, eta urtean 32.000 zerbitzu ordu ematea aurreikusi zen, baina datuen arabera, urriko datarekin jada 28.450 ordu inguru erabili ditugu sailean, eta horrek ikerketa bat egitera eraman gaitu, orain arteko hilabeteen kopurua kontutan hartuta, aurreikusten da gutxienez urte bukaerara arte 2.500 ordu gehiago beharko ditugula. Zerbitzu ordu horiek ordaintzeko 48.000 euro gehiago beharko ditugu. Alkateak esan bezala, diru hori sail barruko beste partidetatik bideratuko da partida honetara, zehazki 25.000 euro erabiliko dira Gizarte Laguntzako izeneko partidatik eta 13.000 euro belaunaldien arteko programatik.”

Alkate jaunak, gaia eztabaidara jarri du eta lehenbizi, Alkain jaunak, PSE-EE udal taldeko eledunak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Bueno, eskerrik asko por la explicación. Sabemos que llegado final de año nos toca hacer estos ajustes en las partidas. Nosotros hemos estado en el equipo de Gobierno, y sabemos qué pasa entonces.

“¿Qué pasa? Que seguirá pasando de aquí a a que acabe el año, pero, sí que queríamos ser un poco críticos, porque se nos pone de manifiesto, sobre todo en dos partidas, no tanto en las que hay que ampliar, sino en las que se está reduciendo. Y así lo dije en la comisión. Y me voy a referir a dos. Y una es el programa intergeneracional, y otra es la partida de equipamiento de la guardería.

“Con respecto al programa intergeneracional. Pues, bueno, es el segundo año consecutivo que se destinan 13.000 euros para un programa intergeneracional entre personas jóvenes y mayores, que es el segundo año que por falta de iniciativa o por falta de gestión, pues bueno, se vuelve a quedar a 0. Y sí que con eso tenemos que ser críticos, porque cuando hablamos de cuidados y de cuidar de Andoain, un pueblo que te cuida, y hacemos incluso un mercado del cuidado, ayer en los premios Ricardo Arregi hablábamos de los cuidados, pues esto, son cuidados también, y mantener dos años una partida para un programa intergeneracional y dejarla los dos años a 0, pues, no es precisamente el mejor ejemplo de cuidar, ni a nuestros mayores, ni a nuestros jóvenes, que es verdad que se han hecho cosas, que el Instituto Leizaran está trabajando con nuestros mayores, y desde aquí lo quería agradecer y poner en valor y reconocerlo, porque además lo veo cada miércoles y cada jueves. Pero, repito, esta iniciativa del Instituto Leizaran, y no a iniciativa nuestra, y todos sabemos que cuando se hacen cosas se ven en el presupuesto. Y, bueno, eso, por un lado, y por otro, con respecto a la partida del equipamiento de la guardería, no se ha utilizado nada de los 12.000 euros, y somos conscientes, porque así lo hemos hablado también en las comisiones, del problema que hemos tenido este año con las olas de calor y la falta de sistemas de climatización, hemos oído quejas de padres y de madres. Aquí se ha debatido, y creemos que era una oportunidad. Bueno, teníamos dinero en la partida, tenemos presupuesto en la partida, y no entendemos, y vemos que vamos, nos es incomprensible que no se haya utilizado para solucionar ese problema. Y sí que, sabemos o entendemos que el equipo de gobierno está trabajando en los presupuestos del año que viene, y que por lo menos este importe esta vez se va a destinar a, pues, bueno, a pagar, a pagar otras partidas, o el Gabon Giroan y este tipo de cosas, pues bueno, por lo menos esta partida sí se aumente y podamos destinarla a la guardería, que lo necesitan. Por lo tanto, no vamos a votar en contra, porque esto hay que pagarlo, pero tampoco podemos votar afirmativamente ahora mismo. Nos abstendremos.”

Jarraian, Goenaga jaunak EAJ/PNV udal taldeko eledunak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Guk, batzordean aipatu genuen, aldeko bozka emango dugu. Baina bueno, bozka kritikoa, alde batetik, Barandiaran andreak aipatu du etxez etxeko laguntza udal eskumen bat da eta udalari dagokio zerbitzu hori hornitzea. Egia da zerbitzu hori geroz eta, ez det esango eraldaketa prozesu betean dagoela, baina bai, geroz eta konplexuagoa da, geroz eta zabalagoa edo anitzagoa, eta horrek zerbitzua geroz eta gehiago zabaltzea edo birplanteatzea eskatzen du. Beraz, guk ez dugu horren aurka egingo, ulertzen dugulako udalaren eskuduntza dela eta udalari dagokiola. Beraz, horretan ez daukagu ezer.

“Emergentziei buruz ere ez. Izturitzaga, lanketan ari ginen. Zerbait erortzen baldin bada, edonori gertatu dakioken zerbait da. Bai, gaur egun gobernuan daudenei edo oposizioan gaudenoi, edo adibidez trailer bat edo grua bat, Plaza Nafarroan sartu behar izatea. Pues begira, ezustekoak edo sortzen direnak dira, eta bueno, horiek ezinbestean behartzen gaituzte pues egokitzapenak egitera.

“Baina bai, larritzen gaitu, ez dalako lehenbiziko urtea, aurreko urtean ere berdin pasa zan, aurrekoan



ere bai, urte bukaeran kulturen iristen gara oso, programazio aldetik oso urri eta beti gabonak direnerako, ezinean, diruz nola hornitu partida hori, ez? Eta hori jada estrukturala da. Orduan, nik uste dut, bai egin behar dela, baita ere aurreikuspen bat, urte guztian zehar, ze hornidura daukagun ikusi, urtean zehar zer programa egon behar duten, Kale Giroan, Ikuszirkus, Gau Giroan, eta saiatu diru hori modu arduratsuan, responsablean kudeatzen. Ze orain dela urtebete, gogoan badezue, ere diru kreditu modifikazioak egiten ari ginen diruz hornitzeko, aurten berriro. Horrek esan nahi du, edo motz gelditzen garela edo behar beste gastatzen dugula eta urte bukaeran ez dakigula zer egin. Ze hori da beste kexa bat iritsi zaiguna, baita ere, ez? badakigu programazio kultural batetan, gauza esperimentalak, tokiko sorkuntza aldekoak, eta gero punta puntako kultur ikuskizunak ekarri behar direla: Bai iritsi zaigu kritika bat, apala dela aurtengo programazioa, o sea, bai egon dala nolabaiteko anbizio falta bat edo gutxienez atzerapauso bat, eta ez dakit, anbizioa da kantitatean edo kalitatean, baina bai da kexa bat iritsi zaiguna leku ezberdinetatik. Ez dakit dan aurrekontuak itota, ezin izan dugulako espektatiba hori lortu izan, baina bueno, behintzat gogoeta bat egin nahi nuen, planifikatu ezin daitekeen hori ezin da planifikatu, baina bai guri dagokiguna planifikatzea zorrotzago egin beharko genukeela, ez genukeelako nahiko hurrengo urtean berriro ere halako ohiko partidak diruz hornitzen eman behar, ukatu behar izatea.”

Jarraian, Barandiaran andreak, hartu du hitza, honakoa erantzuteko:

“Bueno, niri dagokidanez. Batzordean azaldu zitzaizuen Belaunaldi Arteko Programaren partida zergatik ez genuen erabiliko. Arazoa, bueno ez dakit arazo teknikoak diren edo behintzat arrazoi teknikoak baziren. Egia da, bi urtez gertatu den zerbait dela, baina Gizarte Zerbitzuetan bi urtez egoera antzekoan egon gara. Nere aldetik babes politikoa ere badauka ekintza horrek. Kontua da, bai teknikoki, eta bai politikoki eta ulertuta eta partekatuta zuekin Belaunaldien Arteko Programa batek gizartean ze onura eduki dezakeen andoaindarrontzat, bada guretzako ere zerbait jarraituko duguna eta hurrengo urteko aurrekontuetan berriro txertatuko duguna. Eta hori da.”

Jarraian, Alkain jaunak, PSE-EE udal taldeko eledunak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Vale, está bien que los presupuestos del año que viene se contemple, pero ya vamos viendo que no es ninguna garantía, lo que queremos es que se incluya en los presupuestos y que se ejecute, y que se ejecute de verdad, o sea, que se realice, que se gaste en nuestras personas mayores y los jóvenes.

“Nos lo están reclamando y además tenemos unas oportunidades con el, entre otras, con el Instituto Leizaran, que yo creo que son muy bonitas y que hay, y que hay mucha, mucha masa de trabajo ahí. Entonces, por lo que en el incluir en el presupuesto sí, pero llevar a cabo y tener iniciativa para realizarlas también.”

Barandiaran andreak erantzuten du:

“Nik azpimarra egin nahi nuen guretzako ere oso garrantzitsua dela eta badirudi ez egiteak esan nahi duela ez zaigula, ez diogula nahikoa garrantzia ematen eta ez da horrela.”

Parte-hartze gehiagorik izan ez denez, Alkate jaunak, proposamena bozketara jarri du eta Osoko Udalbatzaren Bilkurak, gehiengoz, Alkate jaunaren eta EH Bildu, EAJ/PNV eta Elkarrekin Podemos udal taldeetako zinegotzien aldeko botoekin eta PSE-EE udal taldeko zinegotzien abstentzioarekin, honakoa erabaki du:

Lehenengoa.- Onartzea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espediente, kreditu transferentzien modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapitulukako laburpen honen arabera:

Kreditua transferituko duten gastuak (bajak)

Kapitulua	Izena	Egungo kredituak	Murrizketa	Amaierako kreditua
2	GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN	376.970,0 0	73.000,00	303.970,00
6	INBERTSIO ERREALAK	12.000,00	12.000,00	0,00
	GUZTIRA	388.970,0 0	85.000,00	303.970,00

Kreditua jasoko duten gastuak (altak)



Kapitulua	Izena	Egungo kredituak	Gehikuntza	Amaierako kreditua
2	GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN	1.283.026,4 8	85.000,00	1.368.026,48
	GUZTIRA	1.283.026, 48	85.000,00	1.368.026,48

Bigarrena.- Egintza hau bestelako tramiterik gabe irmo eta exekutiboa denez gero, bidezkoa da Kontuhartzaitza Zerbitzuak berehala kontabilizatzea onartutako kreditu aldaketa”.

5. Epe luzerako finantza eragiketa kontratatzeke esleipen proposamena.

Ikusirik, Udalbatzaren Osoko Bilkurak, 2025eko urriaren 30an onartu zuela inbertsioak finantzatzeko epe luzeko kreditu-eragiketa kontratatzeke Baldintzen Agiria.

Kontuan hartuz, honako erakunde hauek aurkeztu dituztela proposamenak:

- 1.- CAIXABANK S A
- 2.- BANCO DE SABADELL SA
- 3.- LABORAL KUTXA
- 4.- BANCO BILBAO VIZCAYA ARGENTARIA SOCIEDAD ANONIMA
- 5.- CAJA RURAL DE NAVARRA, S.C.C.
- 6.- KUTXABANK, S.A

Ikusirik, Kontratazio Mahaiaren 2025eko urriaren 11ko akta eta proposamena, CAJA RURAL DE NAVARRA eta BBVA erakunde finantzarioen aldeko esleipen proposamena eginez, aurkeztu diren eskaintzen sailkapenaren ordenarekin bat etorritz.

Ikusirik, 2025eko azaroaren 12 eta 13an Diruzainak egindako txostenak.

Era berean, Antolaketa Batzorde Informatzaileak 2025/11/19(e)ko bileran emandako aldeko irizpena ikusirik.

Alkate jaunak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Bai, dakizuen bezela, kiroldegia eta zerbitzutako pabelloia egiteko mailegua eskatzeko prozedura abiatu genuen eta prozedura horretan, gaur beste urrats bat emango guke. Gaurko proposamena onartu ezker, gaur onartzera datorren proposamena, zehazki abiatu zen azaroaren 10ean egin zen lehenengo sobreako proposamenak aztertzerakoan, bertan, Andoainen bulegoa duten banketxe ezberdinek egin zuten beraien proposamena eta egiaztatu zen ba dokumentazio guztia ondo zegoela.

“Azaroaren hamaikan, bigarren sobrea ireki zen eta eskeintza guztiak aztertu ondoren, ikusi zen Rural Kutzarena eta BBVAren zirela eskaintzarik onenak.

“Zehazki, Rural Kutzaren proposamena, 8.874.599,35 eurotako, eta Euriborra gehi 0,19ko diferentzialarekin izan zen eta BBVAren, kopuru berdinegatik eta Euriborra gehi 0,44ko diferentziarekin. Ondorioz, finantzaio osorako bi, finantzaioen batura, 17.749.198,70 eurotako da, eta kostua izango litzake Euriborra gehi 0,315.

“Guztira, mailegu honen epea 18 urtekoa izango da. Lehenengo hiru urtetan erabilitakoaren gaineko interesak ordainduko lirateke eta gainerako 15 urteetan amortizazioa. Behin, gaur Plenoak onartuko baluke, hurrengo urratsa Aldundiaren baimena eskuratzea izango litzateke.

“Dakizuen bezala, aurrez ere horrela adierazi genuen, prozesu hau abiatu genuenean Aldundiarekin izan genituen hainbat bilera eta prozesu honen berri une oro dauka Aldundiak, eta orain beharko genukeena da proposamen honen inguruko azken onespina eta behin Aldundiak baimendu ondoren, sinatzea geratuko litzateke.”

Jarrian, Alkate jaunak, gaia eztabaidara jarri du eta lehenbizi, Alkain jaunak, PSE-EE udal taldeko eledunak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Hace dos meses apoyamos el modificativo de crédito para iniciar los trámites del préstamo, pero ya dejamos claro que nuestro apoyo no era un cheque en blanco, sino una oportunidad para llegar a un acuerdo. Exigimos entonces al señor Alcalde la presentación de un plan económico financiero completo



y serio que explicase y avalase la viabilidad de la operación, y formulamos hasta 16 preguntas para conocer, entre otras cuestiones, qué medidas estructurales deberemos adoptar en los próximos 18 años, que es el plazo que tiene este préstamo para devolverlo, teniendo en cuenta que actualmente en torno al 90% del presupuesto municipal es gasto comprometido.

“Dos meses después de aquella primera petición que les trasladamos, la situación es exactamente la misma. Ni nos han presentado el Plan Económico Financiero, ni siquiera nos han presentado el borrador, ni nos han respondido a nuestras preguntas, ni han ofrecido una sola explicación. Una vez más, ustedes no nos han facilitado la información que les solicitamos.

“El Partido Socialista ha estado dispuesto a alcanzar un acuerdo con el gobierno municipal para aprobar esta operación, pero no podemos respaldar un préstamo de casi 18 millones de euros, sin saber aún cómo se va a devolver, qué ajustes estructurales aplicará el equipo de gobierno. Hablamos de posibles reducciones, o la eliminación de servicios municipales, recortes en subvenciones, incremento de impuestos y tasas, o incluso reducción de personal municipal y sobre todo, sin garantías de que el ayuntamiento mantendrá y de qué manera su capacidad de inversión para el resto de proyectos estratégicos del municipio. Porque hoy, sin datos que nos digan lo contrario, quedan en el aire proyectos esenciales para Andoain, como son la nueva biblioteca municipal, la renovación de las instalaciones actuales del polideportivo o la reurbanización de Gabriel Aresti y Ondarreta. Solamente por citar alguno de los proyectos. Ya lo dijimos en septiembre y lo recordamos en octubre.

“Esto no va de estar a favor o en contra de la ampliación del polideportivo o del pabellón de servicios, proyectos que, además, me gustaría recordar, se impulsaron en la pasada legislatura y que cuentan con todo nuestro apoyo. Esto va de confianza en la gestión económica y de responsabilidad, y la responsabilidad exige seriedad, datos, planificación y transparencia. Hoy no hay nada de eso, pese a haberlo solicitado en numerosas ocasiones.

“Por eso, y pese al apoyo y a la mano tendida que hemos mostrado hasta ahora, hoy volvemos a actuar con coherencia, porque, como ya advertimos, no vamos a avalar lo que no conocemos, ni lo que el señor alcalde no ha querido explicar, ni a nosotros, ni a la ciudadanía. Para el Grupo Municipal Socialista asumir un préstamo de esta magnitud sin un plan económico financiero claro, riguroso y transparente sería una decisión imprudente y muy arriesgada. Y no estamos dispuestos a asumirla, porque hacerlo comprometería seriamente el futuro de Andoain. Y es que Andoain necesita certezas, no improvisaciones, y los andoindarras tienen derecho a saber cómo les va a afectar este endeudamiento. Más aún, cuando todos sabemos que el pago de esta deuda reducirá la capacidad de inversión municipal para los próximos 18 años, a la mínima expresión. Y ante una decisión tomada así, sin datos, ni información, nuestra postura es clara, proteger el futuro de Andoain, porque nuestro compromiso también es claro. Seguiremos trabajando para que Andoain avance, sí, pero nunca a costa de poner en riesgo su futuro. Ese es nuestro deber y lo cumpliremos.”

Alkate jaunak erantzuten du:

“Bueno, mailegu honen bermeaz, garantiaz eta egokitasunaz, beraien iritzia emateko daude. Aldundia, Kontu-hartzailea, Tribunal de Cuentas. Badaude mekanismoak honen jarraipena egiten dutenak. Gu ari garena da Andoainek, Andoaintzat eta andoaindarrentzat estrategikoak diren bi egitasmoentzako mailegu bat eskatzen eta mailegu horrek ze ondorio izango dituen, guk jada hurrengo urterako aurrekontuarekin ari gara. Neurri drastikorik ez da hartu beharko beharko hurrengo urtean, eta ez dugu aurreikuspen, hemendik bi urtera ere ez. Kontua da, noski, ezingo dira egin, nahiko liratekeen egitasmo guztiak, ezinezkoa da, ez zuek, ez guk eta ez hurrena etortzen denak ere. Baina kontua da estrategikoak izan daitezkeen egitasmo hoien barruan, gure ustez lehentasunezkoak direla kiroldegikoa eta Zerbitzutako pabiloia.

“Eta hurrenkera horretan hurrengo izango litzateke liburutegia. Orduan, laister pasatuko dizuegu 2026ko aurrekontua. Bertan, ikusiko duzue, aurrekontu proposamenean, ikusiko duzue ez dela, halako neurri drastikorik hartzen. Gure aurreikuspena da, mailegu hauei aurre egitea, herritarren bizi baldintzetan eraginik izan gabe, ahalik eta eragin gutxiena izan dezan.”

Jarraian, Goenaga jaunak, EAJ/PNV udal taldeko eledunak hartu du hitza, honakoa esateko:



“Bueno, EAJk aldeko bozka emango du gaur hemen egin dan planteamendu honen aurrean, besteak beste, iraila hasieran eta askotan atzea juten naiz, baina esplikatzen kontestoa jartzeko, adostu genuelako gobernu taldearekin, besteak beste, zein ziran Andoainek epe ertainean esango dut, ez motzean, epe ertain-luzera, zituen bi inbertsio, hiru inbertsio, estrategikoenak eta lehentasunak ezarri behar ziren eta adostu genituen, besteak beste, kiroldegiaren obra eta Illarramendiko Zerbitzuz pabiloia zirela bi lehentasun garrantzitsuenetarikoak. Horrek ez du esan nahi bestelakorik ez zegoenik bainan ba zeudela, besteak beste. Eta bi proiektuek ere gainera zeukatela, madurez edo heldutasuna, nahiko aurreratua. Bueno, jada proiektuekin zeuden, proiektu itxiekin, tramitazio ezberdinak beteta, informe sektorial ezberdinak jasota, orduan alegia, epe motzean lizitatzeko moduan zeuden bi obra zirela, eta horrek ematen zaitu besteak beste, erabakiak hartzera, eta erabaki behar izan genuen eaa garaia zen bi ekimen hauek aktibatzen ala ez.

“Eta bueno, besteak beste, alkate jaunak aipatu duen bezala, adostu genuen, beste proiektu estrategiko batzuen aurrean, hauek aurreratuago zeudela, liburutegiaren kasuan, bestelako tramitazio bat eta lanketa batzuk ere oraindik pendiente dituelako. Eta adostu genuen kreditu honetarako ibilbideak ematen hastea. Gaur ibilbide horren nolabait, beste etapa bat, betetzen da. Eta gu pozik gaude, gaur bai bozkatzeko delako hemen, kiroldegiko lanak eta Illarramendiko lanak lizitatu, martxan jarri ahal izateko kreditoa izatea, kreditu gaitasun hori izatea. Gaur hori bozkatzeko ari gera hemen, gure ustez, EAJk uste du, gaurkoz, bozketan dagoena hori dala.

“Guk ez dugu uste, gaur rekorteak bultzatzen ari garenik edo _supresión de servicios_, ez, guk gaur finantzatzeko dugu, edo ahalbidetzen dugu finantzaketa 2 ekimen hauetarako. Bi ekimen hauetarako soilik, noski, eragingo du horrek herriko estrukturan, edozein ekonomiatan, edozein lekutan egin behar dan bezala.

“Guk bai sinisten dugu, _proteger el futuro de Andoain_, guk ere hori nahi dugu, baina iruitzen zaigu, ezin zela jarraitu, orain arte bezala, inprobisatuz tokian tokiko eta garaiko proiektuak txisteratik ateratzen eta horregatik baloratzen dugu ariketa bat egin izana, eserialdi bat egin izana, pentsatu izana. Aizu, ditugun erronka guztiengatik, zein da gaur egun ditugun bi erronka potolo ekonomikoki eta behintzat ariketa hori baloratzen dugu, hori ere bai da _proteger el futuro de Andoain_ zeren bestela, nola aktibatu halako bi proiektu? Nik ustet ezinezkoa zitzaigula, guk ez degu bilatu bestelako formularik, kanpo kreditu bategatik ez baldin bada, beraz, exigente izango gera, baina bai, nahi degu lan egin eta lan egiten jarraitu _para proteger el futuro de Andoain_, pero con un polideportivo, con unas obras del polideportivo en marcha y con un pabellón de servicios en marcha, que, por cierto, a su vez nos permitirá seguir desprendiéndonos de mochilas que traemos del pasado, de alquileres que suponen a la tesorería un gasto corriente continuado, que no hace más que engordar, engordar, engordar ese gasto corriente.

“Orduan, beraz, alde horretatik gure bozka baiezkoa izango da, sinisten dugulako modu bat delako Andoainen alde egiteko.”

Berritoki ere, Alkate jaunak hartu du hitza, honakoa esateko:

“Bai. Bueno, hoy aquí el señor Alcalde nos ha hablado de la Diputación, del Tribunal de Cuentas, de Intervención, pero lo que no está en manos de esas tres administraciones y sí en las suyas, es decir, de dónde van a salir el millón y medio de euros que este ayuntamiento va a tener que pagar para hacer frente a ese préstamo durante 18 años, 15 más tres de carencia. Por lo tanto, nos puede hablar de distintas administraciones, pero nosotros lo que le estamos pidiendo son esas medidas, de dónde va a salir.

“Creo que hemos sido lo suficientemente claros en estos dos meses. Usted ha hablado que no va a haber medidas drásticas, pero es que no las conocemos, ni las drásticas, ni las no drásticas. No sé si las habrá. Las habrá compartido con el resto de grupos de este Pleno, pero con el Partido Socialista, que somos el principal partido de la oposición no, y aún no las conocemos.

“Decía que, bueno, que no se podrán hacer todos los proyectos, pero cuáles son los que no se van a poder hacer con nosotros? Ustedes no lo han compartido, y, por lo tanto, entenderán que no podemos apoyarlo y no lo vamos a apoyar, precisamente por eso, y hemos tenido la mano tendida desde el primer día. Votamos a favor, les pedimos una serie de datos, les pedimos que se sentasen con nosotros y nos lo explicasen, les dimos la oportunidad de explicarlo al Pleno y delante de la ciudadanía, que la gente lo



supiese, lo supiera, cuáles se van a dejar de hacer y qué medidas se van a tomar. Entonces, pues, no han querido, y ya les digo, por lo que se ve, sí las conocen ustedes, pero no nosotros, y es a nosotros a quienes nos interpelan con el voto, para que le apoyemos, y no estamos en condiciones.”

Parte-hartze gehiagorik izan ez denez, Alkate jaunak, proposamena bozketara jarri du eta Osoko Udalbatzaren Bilkurak, gehiengoz, Alkate jaunaren eta EH Bildu, EAJ/PNV eta Elkarrekin Podemos udal taldeetako zinegotzien aldeko botoekin eta PSE-EE udal taldeko zinegotzien abstentzioarekin, honakoa erabaki du:

1. Kontratua CAJA RURAL DE NAVARRA eta BBVA finantza-erakundeei esleitzea. Kontratazio Mahaiaren 2025eko azaroaren 11ko aktan eta diruzainak 2025eko azaroaren 12an egindako txostenean jasota daude proposamenen ezaugarriak eta balorazioa. Hona hemen esleipen proposamenaren baldintzak:

- CAJA RURAL DE NAVARRA:

Zenbatekoa 8.874.599,35 €

Euriborra 3 hilabete + % 0,19

Epea: 18 urte : 3 urteko erabilera libreko eta amortizazio-gabealdia eta 15 urteko amortizazioa.

Amortizazio lineala/konstantea

Hiru hilean behin

Komisiorik gabe

- BBVA

Zenbatekoa 8.874.599,35 €

Euriborra 3 hilabete + % 0,44 %

Epea: 18 urte : 3 urteko erabilera libreko eta amortizazio-gabealdia eta 15 urteko amortizazioa.

Amortizazio lineala/konstantea

Hiru hilean behin

Komisiorik gabe

Beraz, 17.749.198,70 euroko finantzaketa osorako batez besteko finantzaketa kostua honakoa izango da : Euriborra 3 hilabete + % 0,315

2. Gipuzkoako Foru Aldundiari baimena eskatzea, 2013rako Estatuko Aurrekontu orokorreari buruzko abenduaren 27ko 17/2012 Legearen azken xedapenetako hogeita hamaikagarrenak Defizit publikoa zuzentzeko aurrekontu, tributu eta finantzaketa-gaietako neurriari buruzko abenduaren 30eko 20/2011 Errege Lege Dekretuaren hamalagarren xedapen gehigarrian aldatu zenaren arabera mugagabeko indarraldiarekin

3. Gipuzkoako Foru Aldundiaren baimena lortu ondoren, Alkateari ahalmena ematea, kontratua eta erabaki hau gauzatzeko behar diren agiriak formalizatzeko.

4.-Erabaki hau kontratatzaile Profilean argitaratzea.

4. Ebazpenen berri ematea, zehazki, 2675 zenbakidunetik 2925 zenbakidunera.

Alkateak zinegotzi guztiei jakinarazi die Alkatetzaren ebazpenak, nahiz eta edukiaren berri izan Udalbatzarra aurretik, beraien esku daudela, hain zuzen ere, 2675 zenbakidunetik 2925 zenbakidunera.

Gaia eztabaidara jarri da eta parte-hartzerik izan ez denez, Osoko Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

5. Galderak, eskaerak eta proposamenak.

Alkate jaunak, udalbatzar kideei hitz eman die eta lehenbizi, Verdasco jaunak, PSE-EE udal taldeko zinegotziak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Bueno, nosotros queríamos preguntar acerca del desarrollo urbanístico del barrio de Etxebarrieta. Ya se están dando los primeros pasos, concretamente, bueno, hay una licencia de derribo para una serie de portales.

“Sabemos que se ha puesto en marcha el derribo, pero queremos saber, ¿qué plazos estamos manejando, ha habido algún tipo de contratiempo? Somos concedores de ello, pero a día de hoy ¿qué



Andoingo Udala

Akta: Osoko Udalbatza

OHIKO BILKURA: 2025/11/27

Acta: Pleno Municipal

SESIÓN ORDINARIA: 27/11/2025

plazos estamos manejando?”

Alkate jaunak, hartu du hitza, honakoa erantzuteko:

“Bueno, kontua da, dakizuten bezala, eremu hori landuko duenak bazuen etxe horiek eraisteko baimena, baina etxeak eraisten hasi zirenean amiantoa azaldu zen eta amiantoa azaltzen den eraikinetan, beste prozedura bat edo beste protokolo bat landu behar izaten da eraisteko.

“Etxebizitza horiek, guk esku artean daukagun egutegiaren arabera, hurrengo asteetan, urtea bukatu baino lehenago hasiko dira eraisten.

“Beste galdera erregurik ba ote dago? Ez. Ba amaitutzat emango genuke Udalbatza hau. Eskerrik asko eta ondo izan.”

Eta beste aztergairik ezean, lehendakariak amaitutzat eman du ohiko batzarraldia 19.38 minutu zirenean. Idazkariak batzarraldiari dagokion agiri hau idatzi eta Alkateak irakurri eta ontzat eman ondoren, biek izenpetu dute, bat etorriz Toki Erakundeen Antolamendu, Jardunbide eta Araubideari buruz indarrean dagoen Erregelamenduaren 110.2 artikuluan agindutakoarekin. Eta horren guztiaren fede, nik, Idazkaria naizen honek, ematen dut.

O.E.

Alkatea

Idazkaria

